



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2022KO URTARRILAREN 31EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko urtarrilaren 31ean, arratsaldeko 18:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Santos Etxegia, Xabier Azpiroz.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena, Olatz Dorai eta Ricardo Arangoa.

18:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Abenduaren 22ko ohiko batzarreko eta urtarrilaren 3ko ezohiko batzarreko aktak emailaz helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

2.- Alkate ebazpenak

- 2021/133 alkate ebazpena onartuz Jose Joaquin Barberena Etxeberriak egindako zaharbertzeko dirulaguntza eskaera, 279.60 eurokoa, Berueteko Mikeltoneko bordan kalefakzioko galdara aldatzeko,
- 2021/134 alkate ebazpena onartuz, Itsasoko 4. Poligonoko 24. Lursailean dagoen etxeko teilatua berritzeko obraren behin betiko EIOZren likidazioa obra bukaerako dokumentazioaren arabera eta onartuz ere aipatutako obrarako dirulaguntza eskaera 1.015,18 eurokoa, Iriarte Ansorena Anaiek sustatutakoa.
- 2021/135 alkate ebazpena onartuz, behin behinekoz Gorka Sorozabal Nietok egindako gainbalioaren zergari lotuta ez egoteko eskaera, Aizarotzko Herriko Plaza 2 2. eskubi helbidean dagoen etxebizitzaren salmentagatik, ikusita,

Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera salerosketak ez duela gainbalioa sortu.

- 2021/136 alkate ebazpena onartuz obra baimena ematea I de Redes Electricas Inteligentes empresari Berueteko 11. Poligonoko 28. Lursailean dagoen eraikinerako argi indarra lurperatzeko .

- 2021/137 alkate ebazpena onartuz Amaia Legarra Beunzak egindako eskaera, eta ordaindutako baimena ematea, bere alaba den Haizea Fernandez Legarra etxean konfinatua dagoen epean bere zaintza egiteako, 2020/59. Foru Aginduaren 6. Artikulua jarraituz.

-2021/138 alkate ebazpena onartuz behin behinekoz Marta Gutierrez Quilezi egindako gainbalioaren zergari lotuta ez egoteko eskaera, Aizarotzko Errekaondo 2 kaleko behea ezker helbidean dagoen etxebizitzaren salmentagatik, ikusita, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera salerosketak ez duela gainbalioa sortu.

-2021/139 alkate ebazpena onartuz behin behinekoz Antonio Vitoria Biurrarenari egindako gainbalioaren zergari lotuta ez egoteko eskaera, Orokietako 8. Poligonoko 196. lursailean dagoen etxebizitzaren salmentagatik, ikusita, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera salerosketak ez duela gainbalioa sortu.-

-2022/01 alkate ebazpena onartuz, Berueteko 12, poligonoko 432 eta 440 lursailetan dagoen Txasenea sagardotegirako iharduera sailkatua eta irekiera baimenen titularitate aldatzea, udal honek Angel Alvarez Bermejori onartutakoa, orain bere semea den Manu Alvarez Galarza 73456428V NAN zenbakidunaren izenera pasatzeko , Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko Martxoaren 22ko 4/2005 foru legearen 49.4 artikuluari jarraiki

- 2022/02 alkate ebazpena onartuz lehenik Oihanzabal ikastetxeko inguratzailea hobetzeko Javier Indurain udal-arkitektoak idatzitako memoria eta bigarrenik obra horiek egiteko 17.960 euroko gastua, BEZ kanpo onartzea, eta inbertsio hori egiteko laguntza-eskaera onartzea, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren azaroaren 30eko 282E/2021 Ebazpenean araututakoaren arabera.

3.- 2021. aurrekontua. Behin betiko onespina.

Gai zerrendatik baztertu, jada onartua dago eta argitaratua Nafarroako Aldizkari ofizialean.

4.- Izatekoa bikoteen erregistro bakarrean alta emateko atxikipen proposamena.

Lehen udaletan altan ematen ziren izatezko bikoteak, ondoren 2019/21 Foru Legeak agindu zuen agiri publiko baten bidez eratu behar zirela eta hortaz notaritzetan egin behar zuten tramite hori.

2021/27 Foru Dekretuak erregistro bakarra sortu du eta bertan izena eman behar dute bikotekidek.

Udalek, eta Migrazio Politiketarako Departamentuak sinatu ahal duten hitzarmen baten bidez, udaletara bertaratzen diren izatezko bikoteek alta emateko eskaera sinatu ahalko lukete eta udalek jakinarazi aipatutako departamentura beraiek erregistro bakarrean altan emateko. Tramitazio honen bidez Basaburuko bizilagunek ez lukete tramitazioa Iruñean egin beharrik baizik eta udalera bertara beharko lukete eta udala bitartekari lana egin Izatezko Bikoteen Erregistro Bakarrean alta emanaz. Irakurtzen du

alkateak udalak eta Migrazio Politiketako Departamentuak sinatu beharko luketeen hitzarmena eta ontzat ematen dute bildutakoek proposamena eta hortaz ondoren zehazten den erabakia hartzen dute, kontutan hartuta aurrekari hauek:

-Lehenengoa: Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiken eta Justiziaren Departamentuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak Lankidetzarako Esparru Hitzarmen bat sinatu dute bikote egonkorak eratzea eta ondoren Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatzea errazteko.
- Bigarrena: hitzarmen horri esker, udal-idazkaritzako arduradunaren aurrean bikote egonkorak formalizatu eta azkendu daitezke, bai eta inskribatu daitezkeen egintzak Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrera bidali ere.
Hirugarrena: Basaburuko Udala interesatuta dago zerbitzu hori bere herriko bizilagunei eman ahal izateko.

Ondorioz, Basaburuko Udalak aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen du:

1.- Migrazio Politiken eta Justiziaren Departamentuaren eta Nafarroako Udalerrien Federazioaren arteko Lankidetzarako Esparru Hitzarmenari atxikitzea, bikote egonkorak eratzea eta ondoren Foru Erkidegoko Erregistro Bakarrean inskribatzea

2.- Erabaki honen berri ematea Migrazio Politiken eta Justiziaren Departamentuari (registro.parejas.establish@navarra.es) eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari (fnmc@fnmc.es).

Hitzarmena euskaraz sinatzeko eskaera bideratuko du udalak Migrazio Politika eta Justizia Departamentura.

5.- PDR 2023-2027 programa. Atxikitzeko proposamena-

Alkateak azaltzen du hurrengo urtean PDR programa berria aterako dela eta bertan parte hartu ahal izateko atxikipena onartu beharra daukate udalek. Cederna Garalurrek kudeatzen duen programa da, eta entitate honek horren inguruan bidalitako informazioa irakurtzen da . Hau guztia ikusita bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez:

Ikusirik Nafarroako Landa Garapenerako Programaren barnean 2022an Nafarroako Mendialdeko Estrategia berria (2023-2027) abian jarriko dela, eta horrek estrategiak irauten duen urteetan Nafarroako erakunde publiko eta pribatuentzako LGP-LEADER diru-laguntzak kudeatzea ahalbidetuko duela, udalerriarentzat interesgarria izanik orain arte bezala Cederna Garalur tokiko ekintza-taldean parte hartzea, legez ezarritako quoruma beteta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute honako ERABAKI hau:

1.- Tokiko Garapen Parte-hartzailerako Estrategian eksklusiboki parte hartzea 2023-2027 aldirako. Estrategia hori 2022an idatziko da eta epealdi horretan berean, 2023-2027 aldian, kudeatuko du Cederna Garalur tokiko ekintza-taldeak (IFK zk.: G31372063) berariazko 8. helburuaren barnean (hau da, “Landa-eremuetan enplegua, hazkundera, gizarteratzea eta tokiko garapena sustatzea, bioekonomia eta basogintza jasangarria barne”), NPE-Nekazaritza Politika

Erkideko Nafarroako Plan Estrategikoaren (NPEPE) 2023-2027 aldirako Tokiko Garapen Parte-hartzailearen (LEADER) neurriaren barnean.

2.- Korporazioko kideek Cederna Garalur Tokiko Ekintza Taldeak (LGENFk % 65arekin lagundutako finantziazioarekin) Nafarroako LGP 2014-2020 programaren barnean udalerrian egindako lan onaren berri dute.

3.- Cederna Garalur Tokiko Ekintza Taldearekin parte hartzeko konpromisoa hartzea “eremu geografikoaren 2023-2027 aldirako Tokiko Garapen Parte-hartzaileako estrategia” prestatzeko lanetan.

4.- Konpromisoa hartzea Tokiko Ekintza Taldeko Batzorde Betearazleak edo organo baliokideak ezartzen duen kuota ordaintzeko, taldearen funtzionamendu-kostua finantzatzeko funts publikoek estali ezin duten zatian.

5.- Cederna Garalur Elkarteak 2023-2027 aldiran deituko dituen bilera guztietan parte hartzeko konpromisoa hartzea, bere lurraldearen Tokiko Garapen Parte-hartzailea kudeatzeari dagokionez.

6.- Alkatetzari ahalmena ematea udal honen izenean Cederna Garalur Tokiko Ekintzako Taldearekin harpidetu ditzan akordio hau gauzatzearen ondoriozko agiri guztiak.

7.- Akordio hau Cederna Garalur elkarteari helaraztea.

6.- Mozioak.

Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federakuntzatik Tuterako erahilketa matxistaren inguruan bidalitako mozioa irakurtzen du alkateak, ondoren transkribatzen dena: “Tuterako Udalak doluminak eman nahi dizkio Sara Pina Yereguiren familiari, eta elkartasuna adierazi nahi die haren lagunei eta Castejongo hezkuntza-komunitateko irakasleei. Hunkipen eta oinaze honen aurrean, Tuterako Udalak irmo adierazten du emakumeen aurkako indarkeria arbuiatu eta gaitzetsi egiten duela.

Emakumeen aurkako indarkeriak emakume guztiei eragiten die, adina, egoera sozioekonomikoa edo nazionalitatea kontuan hartu gabe. Berretsi nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria botere-harremanetan oinarritzen dela. Harreman horiek, maila sinbolikoan eta materialean, gizonak emakumeen gainetik jartzen dituzte, eta emakumeak gizonen aurrean mendetasun-egoeran bizi daitezzen betikotzea dute helburu.

Emakumeen aurkako indarkeriak hainbat modu eta jarrera ditu, eta izaera fisiko, psikologiko, sexual edo ekonomikoko kalteak edo sufrimenduak ekar ditzake; emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurkako eraso larria da, eta, ondorioz, Giza Eskubideen urraketa larria eta onartezina dakar. Horietako bakoitza detektatzea, ikusaraztea, arbuiatzea eta gaitzestea ezinbestekoa eta premiazkoa da emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen guztien prebentzioan modu integral batean lan egiteko.

Horregatik guztiagatik, Basaburuko Udalak Osoko Bilkuran honakoa erabaki du:

1. Gure arbuioa eta gaitzespena adierazten dugu Sara Tuterako bizilagunaren hilketaren aurrean, eta une zail hauetan babesa eta elkartasuna adierazten diegu familiari eta beraren gertukoei.
2. Beste behin ere berresten dugu gure jendartean gertatzen den edozein motatako eraso, indarkeria edo jarrera sexista arbuiatzen eta gaitzesten dugula, eta elkarlanean aritzeko konpromisoa hartzen dugu emakumeek jasaten dituzten indarkeriak ezabatzeko, erakundeen erantzuna hobetzeko eta emakumeek ingurune guztietan askatasun osoa izango dutela bermatzeko.
3. Erakunde publiko gisa, konpromisoa hartzen dugu emakumeen aurkako indarkeriaren aurka jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritako betebeharrak dagokigun eremuan beteko direla bermatzeko.
4. Gizarte osoari dei egiten diogu emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna iraunarazten duten rol eta estereotipo sexistetan oinarritutako eredu kulturala aldatzera, bai eta indarkeria matxista gaitzesten jarraitzera eta indarkeria matxistetatik bizirik atera diren emakumeei babesa ematen jarraitzera ere.
5. Gonbitea luzatzen diegu herritarrei emakumeek jasaten dituzten indarkeria-mota ezberdinen aurrean geldirik egon ez daitezen, eta emakumeek segurtasunez eta askatasunez bizitzeko duten eskubidea aldarrikatzen dugu.”

Bildutakoek aho batez onartzen dute transkribatutako adierazpena.

Bestetik Cortesko Udalak ere adierazpen bat bidali du aipatutako gertakariak gaitzesten eta alkateak irakurri ondoren Basaburuko Udalak partekatzen eta onartzen ditu ondoren zehazten diren adierazpenak:

“2022ko urtarrilaren 10ean Tuteran gertatutako Sara Pina Yerequiren hilketa dela eta, honakoa erabaki da aho batez:

Dei honen bidez, Basaburuko Udalak emakumeen kontrako edozein indarkeria mota arbuiatu eta kondenatu nahi du eta babesa adierazi nahi dio familiari. Halaber, lan egiteko konpromisoa erakutsi nahi du, emakumeek indarkeriarik gabe aske bizitzeko duten eskubidea gauza dadin.”

5- Batzordeen informazioa.

Kirol Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.

Otsailaren 26an duatloi proba burutuko dela aipatzen du zinegotziak eta aurreko asteburuan Gartzarongo pilota txapelketako finala ospatu zela. Orain frontenis eta pala txapelketak burutuko dira.

Garapen Batzordea. Xabier Azpirozek ematen du informazioa.

Nafarroako Turismo Plan berrirako Basaburuko bailarak dituen baliabideen inguruko informazio helarazi da eta planaren inguruan hainbat ekarpen egin dira ere.

Bestetik aipatutako planari lotuta ere, zonaldeko bilera izan zen aurreko astean Ultzaman.

Euskara Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.

Korrika 22 ospakizunaren inguruan bilera egin zen AEK-ko koordinatzailearekin eta udalak beti bezala parte hartuko du kilometro bat erosiz.

6- Informazio orokorra.

- Haur eskola ataletik. 2021-2022 ikasturterako erreforzurako gastuarako ekarpenen jakinarazpena, Basaburuari dagokiona 10.175,51 eurokoa.
- Haur eskola ataletik. 2021-2022 ikasturterako ekarpenaren jakinarazpena 64.140,10 eurokoa eta lehenengo ekarpenaren ordainketa egingo dela 51.312 eurokoa.
- Zahartze aktiborako laguntzaren onespena 1.373 eurokoa Aktibatu gimnasia programarako.
- Zahartze aktiborako laguntzaren onespena, 60 urtetik gorakoen yoga ikastarorako, 643,56 euroko laguntza onartuz eta ordainketa egingo dutela jakinaraziz.

7. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 19:30 ak direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.